

ILUSTRATZAILEAREN TXOKOA MAITE GURRUTXAGA AIETE KULTUR ETXEA / CENTRO CULTURAL AIETE

2013-ABENDUA 18 / MARTXOA 23 -2014

Ilustratzailearen txokoa proiektua

2012ko urrian, Donostiako Aiete Kultur Etxean *Ilustratzailearen txokoa* zabaldu zen, Iban Barrenetxea ilustratzailearen eskutik, Eider Eibar, Elena Odriozola, Antton Olariaga eta oraingoan Maite Gurrutxaga.

Proiektu hau Donostia Kulturaren eta Galtzagorri Elkartearen arteko lankidetzari esker jarri da martxan. Erakustokiek itxura desberdina dute: armairuarena, ispiluarena, pendulu erlojuarena eta kutxarena. Bertan aurkitu daitezke liburuetarako egindako ilustrazioak, liburuak, objektuak, eskulturak eta altxor txikiak.

MAITE GURRUTXAGA OTAMENDI (Amezketan, 1983)

Biografia-Bibliografia

Arte Ederrak ikasia Leioako EHU-n eta Bartzelonako UB-n. Arte Ederrak ikasten ari zela ezagutu zuen ilustrazioaren mundua, eta erabaki hori zela egin nahi zuena, ilustratzailea izan alegia. Horregatik, ilustrazioa ikasi zuen Bartzelonako Escola De La Donna zentruan.

2008. urtean hasi zen liburuak ilustratzen. Tartean egin ditu diskentzako ilustrazioak, heldu, gazte eta haurrentzako liburu-irudiak, aldizkarietarako kolaborazioak...etabar.

2009. urtean Etxepare saria irabazi nuen Mikel Gurrutxagaren ondotik, *Alex nire laguna* album ilustratuarekin, ondoren Pamielak eta Kalandrakak argitaratu zutena 2010. urtean.

Azkena ilustratu dituen lan batzuk dira:

- *Kontuari Kontu ipuin bilduma; Hiru Olatuak*. Itziar Zubizarreta. Galtzagorri Elkarteak argitaratua 2012. urtean.
- *Maitagarria eta desioa*, Mariasun Landarena eta Elkar argitaletxeak argitaratua. 2012.
- *Amattoren uzta*, Mayi Ariztiaren Ipar Euskal Herriko tradiziozko ipuinen bilduma, Patxi Zubizarretak egokitua eta Alberdania, Erein eta Igela argitaletxeak 2012. urtean berrargitaratua.
- 2013. urtean, Edo Argitaletxearen Begikoak atalean, *Maite Gurrutxaga, Alderik alde*. Hau 2010 eta 2011 urteen artean betetako bozetu liburuen bilduma da.

- Komikigintzan ere murgildu da, *Habiak* (*Nidos* erderazko edizioan), Dejabu panpin laborategiaren "Gizona ez da Txoria" antzerkilanean oinarritutako komikiarekin, Txalapartak 2013ko Azaroan argitaratua.

Ilustratzailearen lana

Umetatik marraztu izan du, baina ez zuen inoiz pentsatu ilustrazioa bere lanbidea izan zitekeenik. Amezketako etxean lanerako duen gelan ematen ditu Maite Gurrutxagak, irratia lagun, egunaren ordu gehienak, bere buruari ezartzen dion diziplinari jarraiki.

Beti eskura izaten du koaderno txikian, lan pertsonaletarako erabiltzen du. Akuarela-paperezko koadernoak dira, orri lodiagoak, akuarelak edo tintak ondo jasaten dituztenak. Lengoia propioaren etengabeko bilaketan lagungarri zaio koadernoak. Eta hortik sortu da Edo Argitaletxearen *Alderik alde* liburuxka.

Eskuz marrazten du, ondoren digitalizatzeko. Eskuz egin eta eskaneatu egiten du, bukaeran Photoshop programan konponketak eta kontrasteren bat egiten du, ahal den gutxiena.

Pribilegiotzat du gustuko jardunean aritzea.

www.maitegurrutxaga.blogspot.com

<http://www.youtube.com/watch?v=WbEAp2PkMSg>

ILUSTRATZAILEAREN TXOKOA

MAITE GURRUTXAGA

AIETE KULTUR ETXEA / CENTRO CULTURAL AIETE

2013- 18 DICIEMBRE / 23 MARZO-2014

El proyecto Ilustratzailearen Txokoa

Desde que en octubre de 2012 se pusiera en marcha *Ilustratzailearen Txokoa* en el Centro Cultural Aiete, han pasado por él las y los ilustradores Iban Barrenetxea, Eider Eibar, Elena Odriozola y Antton Olariaga. Ahora es el turno de Maite Gurrutxaga.

Este proyecto se puso en marcha mediante la colaboración de Donostia Kultura y Galtzagorri Elkarte. Los expositores tiene forma de armario, espejo, reloj de péndulo y cofre, y en ellos, además de las ilustraciones hechas para los cuentos, hay expuestos libros, objetos, esculturas, pequeños tesoros...etcétera que inspiran a estos artistas.

MAITE GURRUTXAGA OTAMENDI (Amezketza, 1983)

Biografía-Bibliografía

Estudió Bellas Artes en la UPV en Leioa y en la UB de Barcelona. Conoció el mundo de la ilustración estudiando dicha disciplina, y decidió que eso era lo que quería hacer: ser ilustradora, por lo que estudió ilustración en el centro Escola De La Donna de Barcelona.

En 2008 comenzó con la ilustración de libros, y entre otros, ilustraciones para discos, imágenes de libros para personas adultas y público infantil y juvenil, colaboraciones para revistas, etc.

En 2009 ganó el premio Etxepare junto a Mikel Gurrutxaga, con el álbum ilustrado *Alex nire laguna*, que fue publicado en 2010 por Pamiela y Kalandraka.

He aquí algunos de los últimos trabajos que ha ilustrado:

- *Kontuari Kontu ipuin bilduma; Hiru Olatuak*. Itziar Zubizarreta. Publicado en 2012 por Galtzagorri Elkartea.
- *Maitagarria eta desioa*, de Mariasun Landa y publicado en 2012 por la editorial Elkar.
- *Amattoren uzta*, recopilación de cuentos de la tradición de Euskal Herria norte de Mayi Arizti, adaptada por Patxi Zubizarreta y reeditada en 2012 por las editoriales Alberdania, Erein e Igela.
- En 2013, *Maite Gurrutxaga, Alderik alde* en la sección Begikoak de la editorial Edo, que se trata de una recopilación de libros de bocetos realizados entre los años 2010 y 2011.

- También se ha sumergido en el mundo del comic con *Habiak* (Nidos en la edición en castellano), basado en la obra de teatro "Gizona ez da Txoria" del laboratorio de muñecos Dejabu.

El trabajo de ilustradora

Ha dibujado desde niña, pero nunca pensó que pudiera hacer de la ilustración su oficio. Maite Gurrutxaga pasa la mayor parte de las horas del día en una habitación de trabajo que dispone en su casa de Amezketa, acompañada de la radio, y cumpliendo con la disciplina que se impone a sí misma.

Siempre tiene a mano un cuaderno. Son cuadernos de papel de acuarela, de hojas gruesas, propias para acuarelas y tintas. El cuaderno le es muy útil en esa búsqueda constante de su propio lenguaje. El libro *Alderik alde* de la editorial Edo surgió de esta manera.

Dibuja a mano, para digitalizarlo después. Tras dibujarlo, lo escanea, y finalmente realiza arreglos y algún contraste con el programa Photoshop, pero lo menos posible.

Le parece un privilegio trabajar en lo que le gusta.

www.maitegurrutxaga.blogspot.com

<http://www.youtube.com/watch?v=WbEAp2PkMSg>